



Akelarre. Nestor Barrenetxea



## EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



# bertan

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA



## Julio Ibarra

«Aurpegia ezaguna denean, normalean kritikapean zabilta»

1998ko otsaila. 1. zkia. Dohako alea.



- 3 **BERTOKOAK:**  
ZER DA HAU?  
DERITZOTENA.
- 5 **BUZOIA:**  
ETXEBARRIAKO PARKEA
- 6 **BEITU!:**  
GAZI-GOZOAK.
- 7 **BEGIA.**
- 8 **BAZEN BEHIN:**  
ATZERA BEGIRA
- 9 **BERRI BILA:**  
ESTUDIANTE TUNANTE BAINO...

- 11 **BAKARKA:**  
JULIO IBARRA.
- 14 **BERRKARI.**
- 22 **BERBETAN:**  
METROA.
- 23 **BERRI BILA:**  
«6 IZAR» KROSSA.
- 27 **BERBETAN:**  
BEGOÑAKO TANATORIOA.
- 28 **BOTA BA!:**  
SANTUTXUKO HOKEY TALDEA.  
MALLONA.

- 30 **BIDEAK:**  
EDABE MAGIKOA
- 32 **BITXIKERIAK.**
- 33 **BEGOÑA ALDEAN:**  
AGENDA
- 34 **BURUHAUSTEA..**  
DENBORAPASAK.  
HOROSKOPOA.
- 35 **BERTSOAK:**  
BERTSO BERRIAK BERTONI  
JARRIAK.



**ARGITARATZAILEA:**

Batana Batu Kultur Elkartea

**ERREDAKZIOA:**

Aita Pernet, 9  
Bilbo - 48004  
Telefona: 473 54 48  
P.e.: berton@mail.com

**ZUZENDARIA:**

Aitziber Laskibar

**ERREDAKZIOA:**

Unai Cuevas  
Arrate Diez  
Urtzi Urrutikoetxea  
Zuriñe Uriarte

**ARGAZKIAK:**

Iñigo Azkona

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Joseba Barrenetxea

**KOLABORATZAILEAK:**


Itxaso Perez  
Benito Fiz  
Koldo Urrutikoetxea  
Jaione Onaindia

**LEGE GORDAILUA:**

Bi-85-98

**ALE KOPURUA:**

2.000



# zer da hau?



**au, eskuetan duzuna, azalean irakurri duzun legez, Berton, Mahatserriko aldizkaria da, 1 zenbakia hain zuzen ere, berri-berria, beraz.**

–Mahatserriko aldizkaria? Mahatserrria? Zer da hori?

–Ez dakizu? Tira! Naturala da, gaztea zara eta. Azalduko dizut. Begira, kanpoko norbaitek nongoa zaren galdeztzen badizu, «bilbotarra» esango duzu seguruenik, eta gehiago jakin gura izanez gero «Begoñakoa», «Txurdinagakoa», «Santutxukoa», «Boluetakoa», «Otxarkoagakoa», «Arabella-koa» edo beste auzo batekoa esango duzu, zeurea. Baina, beharbada ez dakizu auzo hauetako guztietako biztanleak XX. mendera arte ez zirela bilbotarrak, ez, hau guztia beste herri bat zen, udaletxe eta guzti. Badakizu zein?

–Mahatserrria?

–Ez, La Salvetik hasita eta Etxebarrirainoko eremu guztia, Bilboko alde zaharra eta ingurua kenduta, Begoñako elizaurrea edo errepublika zen. Bilbok anexionatu arte udalerrri independientea zen Begoña.

–Ene! Ez dut jakin bada! Eta Mahatserrria zer da orduan?

–Mahatserrria Begoña da, eta bertakoei «mahatsorriak» esaten zitzairen. Begoñan txakoli ugari eta ona egiten zela dirudi, eta hortikxe ei dator ezizena. Izan ere, mahatsorri gehienak baserriarrak ziren, eta euskaldunak, bilbotarrak ez bezala.

–Tira! Baina horiek lehengo kontuak dira. Gaur egun jende gutxiak dakizki. Eta lehengo Begoñako auzo bakoitzak bere bizitza dauka, eta independientek dira guztiz.

–Bai, egia da. Eta aldizkariaren helburua ez da lehengo Begoñaren independentzia eskatzea, edo planteatzea ere ez. Gure helburua auzo hauetako jendearen artean bertoko informazioa eta jendearen berri ematea da, zeren, zuk esan duzun legez, auzo bakoitzak

bere bizitza dauka, eduki, eta bizitza hori guztia ez da zoritxarrez ea inon isladatzen, eta horixe behar dugu, gure ustez, bertokoa kontatzen duen hedabide bat. Mahatserriko informazio-aldizkaria.

–Ene! Euskaraz dago dena berriz!

–Bai, gu euskaldunak gara, eta euskaraz bizitzeko ahaleginetan gabilta. Eta uste dugu ez garela bakarrak he-

duzu, hor daude erredaktore eta kolaboratzaileen zerrrenda.

–Bai, baina nork ateratzen du? Enpresa batek? Ala, zer da hau?

–Beitu, hau herri-aldizkaria da, ez da negozioa. Aldizkaria ateratzeko elkarre bat sortu da eta horren inguruan hasi da jendea beharrean, baina gauzaxto bat esan behar dizut. Aldizkariko atek zabal-zabalik dituzte parte hartu gura duten guztiak. Zeuk ere bai. Hor dituzu telefonoa eta helbidea.

–Ederto! Irakurtzeko eroango dut. Zenbat da?

–Ezer ere ez! Lehenengo zenbaki hau debalde da.

–Ene! Eskerrik asko. Eta hurrengoak ere bai?

–Ez, zoritxarrez, ez. Herri askotan debalde ematen dira honelako aldizkariak, baina, kontuak egiten hasi, eta honelako aldizkari batek sortzen dituen gastuei aurre egiteko kobratu beste aukerarik ez dago. Hori bai, herri-aldizkaria da eta ahalik eta merkeen salduko da, 125 pezetatan.

–Eta non?

–Modurik errazena eta erosoena ale honen erdian duzun harpidetza orria betetzea eta bidaltzea da, horrela etxean arazo barik hartuko duzu hilean-hilean.

–A! Eskerrik asko informazioagatik. Segituko dut leitzen.

–Ez dago zergatik! Hurrengora arte!

«La Salvetik hasita eta Etxebarrirainoko eremu guztia, Bilboko alde zaharra eta ingurua kenduta, Begoñako elizaurrea edo errepublika zen. Bilbok anexionatu arte udalerrri independientea zen Begoña.»


men inguruan, ezta?. Gainera, lehen esan dizut, mahatsorri gehienak euskaldunak ziren mende honetara arte, eta oraindino dira Begoñako euskara egiten dutenak.

–Begoñako euskara? hemengoek ez dakite euskaraz aspaldian! Beste herri bateko familiakoak ez badira edo ikastolan edo euskaltegian ikasi ez badute.

–Ez horixe, laztana! Begoñan oraindino dira bertoko euskaldunak, gutxi, egia esanda, baina Arbolantxa eta Txurdinagaren gainean oraindik geratzen dira baserri batzuk, eta horkoen artean euskaldunak daude, bertokoak! Eta inguruko beste euskaldun guztioi dagokigu horien lekukoa hartzea, Mahatserrria berri euskalduna izan dadin.

–Eta nortzuek egiten dute aldizkaria?

–Dena jakin gura duzu zuk! Begira, irakurri hurrengo orrialdea eta ikusiko



# ...deritzotena

**Begoña aldeko hainbat pertsona ezagunari eskatu diogu bere iritzia aldizkari berri honen inguruan. Zure iritzia agertzea nahi baduzu gure helbidera argazki batekin bidaliguzu.**




«Komunikazioa, giza-harremanetan giltza eta bidea. Ea hementxe bertan aukera horri ekiten diogun, euskaldunon arimaren bibrazioan izanez.»

PURI TXASKO



«Poz handia eman dit Begoñako antzinako Errepublikako mugetan aldizkari bat euskaraz sortzeko asmo horrek. Izan dadila antzinako bertako euskaldunen lekukoa hartzea. Bilboko alderik euskaldunenetarikoa dugun inguru zabal hori euskalduntzen eta alfabetatzen hainbeste ahalegin egin dugunok, pozez beterik egiten diogu ongi etorria. Lurra gertatuta duzue. Aurrera, bada, inguruak euskaraz dantzan jarri arte.»

PATXI URIBARREN



«Begoñan, Berton. Begoña izenaren jatorria azaltzeko etimologia irudimentsu batek dioenez, behinola elizate izan eta gaur auzo baino ez den Bilboko alde honen izena Bego oina! agindutik omen dator. Politegia egia izateko, baina esanguratsua ekimenaren lema modura, Begoñan hazi eta bizi nahi duen aldizkari batentzat, oinak bertan ezarrit bertokotzeko. Zorionak Berton! Oinak bertan dituzula, eutsi goiari!»

J. R. ETXEBARRIA



«Begoñan, asmo barri bat dagoela esan dauste, baina oraingo honetan asmo eder bat; asmo berezi bat esatera niyoan, baina ez, obeto joako EDER hitza. Euskera hutsean agertuko dan aldizkari bat eta neretzat asmo hori ederra bada beste askorentzat be holan izango dalakoaren zihurtasuna daukat. Begoñan euskaldun asko bizi gara, Bilboko auzunerik euskaldunena dala uste dot, hiru ikastola dagoz bertan eta hainbat ikastetxetan B erduan irakasten da, beraz horren eraginez geroago ta euskaldun gehiago, eta horregaitik asmo honek txalo zaparrada bat merezi dau, gazte askoren guraria beteko dau eta. Asmo hori aurrera ateratzen saiatu zarenoi zorionak eta jakin eizue azkenengo ahalegina lehenengo baino azkarragoa dala. Beraz, aurrera eta ekin lan horretan.»

JOSEBA ARRIETA

«Berton aldizkariari agur! Lehengo Begoña zaharra berpiztu nahi duen agerkariari bizi luze eta oparoa opa nahi diot. Bestalde, Begoñako mahats-herria bere horretan ezin berreskuratu bada ere, bere horretan dirauten euskal ekandu eta ohiturek aurrera iraun dezaten balioko al du aldizkari euskaldun berri honek! Zorionak!»

GOTZON LOBERA

«Lekuan lekuko euskal herri-aldizkariak, han-hor-hemen, nahinon loratuten direan uneon, zergatik ez bertan? Berton bere kima barri baten antzean erne jaku. Berbon bidez opatu gura deusat ondo mundura daitela eta eduki dagiala bide on.»


IÑAKI GAMINDE

# Etxebarriako parkea

## ZAHAR ETA GAZTEEN TOPAGUNEA

Etxebarriako parkea Bilboko birikietariko bat dugu, gelditzen diren apurretariko bat. Harrigarria dirudien arren, garai batean altzairu lantegi bat zegoen lekuan agureei paseiatzeko, umeei jolasteko edota bizikletan ibiltzeko aukera emango dien parke zoragarri bat dugu gaur. Sortu zenetik era guztieta-ko ekitaldiak bere gain hartu dituen parke honek ez du atsedean hartzeko astirik. Goizean goiz zeharkatuz gero parkea txakurrez beterik aurkituko duzu; hauek izaten dira egunero heltzen diren lehenengoak. Gerora, goiz erdian, jubilatutik dauden eta parkean euren topaketa gunea duten hainbat agure aurki dituzte pasealekuan zehar dauden eserlekuetan jezarririk. Eta zer esanik ez lehenengo eguzki izpiak irtetzen hasten direnean; orduan hondartza baten itxura hartzen du parkeak. Baina hauek ere ez dira arratsalde guztian gertuko eta haurtzaindegi eta ikastolek ateak isten dituztenean umez betetzen da parkea, gero, iluntzean, korrika egitera joaten diren horiei testigua uzteko. Egia esan ezingo nuke gauez parkean inor dagoenik baieztatu, baina ziur orduan ere ez dela parkea bakarrik geratzen.

ITZIAR R. ESPARTA (BEGOÑA)



**GORRIA**  
Aldizkariak, gozokiak, bideoak, ...  
Santutxu, 18 - Tfnoa: 433 27 05


**Lanbroa**

**MENDIA**  
**BILBO 82**  
Santutxuko poteo gunea

**Otoio**  
**Mendi**  
Sta. Klara

**Bikoitz**  
ARROPAK ★  
ZILARRA ★  
OPARIK ★  
Part. Arsuaga SANTUTXU  
Tel & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO

**MESÓN**  
**URETXE**  
Santutxuko poteo gunean





# gazi-gozoak

Atal honek, euskarak gure eguneroko bizitzan duen presentziaren ispilua izan nahi du. Gure hizkuntzaren erabilera okerrak eta zuzenak agertuko dira argazki moduan, irudi batek mila hitz baino gehiago balio duelakoan... Salatu edo txalotu egingo dugu kasuaren arabera. Zu zeu izan zaitezke bertoko berriemalea; argazki kamara hartu eta bidalguzu lotsa barik.



*Hain zaila al da? Ez dakigu arazo zein den, hiztegi guztiak desagertu dira? Ez dago inon euskara itzulzailerik langabezia?*



«todas direcciones» idatzi izan balute, seinale honek ez luke egun bakar bat kalean iraungo.



**Mintza taldea:** Begoñako historia, euskerari eutsiz.

Hizkuntza bat ikastea berez nekeza bada, areago hau erabiltzerik ez badago. Eta gutxi gora behera euskerarekin hori gertatu ohi da.



Euskaltegikoaz gain, zaila da gurea bezalako eremuetan ikasitako euskerari eustea, kalean gehiengoz gaztekeraz ibili behar baita. Eta ondorioz sarri atzera jotzen du ikasitako hizkuntza horrek. Santutxuko euskaltegian goiko urratsetan zebiltzan talde bat hizkuntzari eutsi beharraz jabetu eta zenbait ideia garatu zituzten era gustagarri batean ikasitakoa gorde ahal izateko. Hamabost urteren buruan, Begoña aldeko historiaren informazio eskerga daukate eskuetan. Baina bidea luzea izan da, eta eurekin berbetan, lehenengo helburua betetzeaz gain, era berean egindako lanaren balioaz ohartu gara. Euskera erabiltzeko ariketen ondorena zinta, argazki eta liburuki askotan batzen da.


Euskera ikasten egindako ahaleginak alperrekoak ez zirela erakusteko bultzatu zuten mintza talde hau duela hamabost urte, eta itxuraz erabilgarria izan da. Etengabe eraberritzearen premia aipatzen dute, «zenbait gai oso arin amaitzen direlako eta ezin da beti gauza beren gainean ibili». Horrela dabilta, gustuko zaletasunak bildurik asteen bizpahiru aldiz batzen eta zapaturoko mendi irteerari eutsiz, beti ere arazo bat edo beste medio, orokorrean erabili ezin duten euskeraz berbetan.

Santutxuko AEK-ko Didaktika taldearen gomendioz, Bizkai-ko mendietara joan ohi ziren zapatueta. Gero, asteen zehar batzerakoan, mendia marraztu eta deskribatu egiten zuten eta horrela mintza praktikari eusten zioten. Baina urteen buruan, lau liburuxka beteta, gaia aldatzea otu zitzairen, eta herri bat

ezagutzea -lehenago ere mendialdeko herrietan eginga, bestaldea. Baina denbora laburra eta Bilbo handia dira berez, eta Begoña hautatu zuten.

Astiro astiro bilketa beharri ekin zioten, argazkiak pilatzen, non zer zegoen eta gaur zer dagoen bere lekuan. 1870ko data ipini zuten mugari, bestela ere zer ikertua bazegoenez. Beti ere, honek guztiak euskera erabiltzeko balio izatearen arduraz.

Liburua duela urte bi amaitu zuten, eta dagoeneko zaharkitzen dabilela kontatu digute. Izan ere, baserri batzuk bota dituzte jada, eta beste zenbait aldaketa ere egon dira. Bilduma argitaratzeko oztopoak egon arren, iraupenaren fruitua esku artean daukate. Gomendioa ere luzatzen diete euskera ikasten dabilta beste, euren lagunen artean, elkarren gustuak eta abar kontutan, antzeko gauzak egitea atsegin badute, erdua badaukatela, nahiz eta, jakina «gauza asko egin daitezke, bakoitzak ikusi behar du nondik jo». Oraingoz, zapaturu mendira irteten jarraitzen dute.



« Berriz diot: Soinuak ez du enzuten, sua ez da errecen, ura ez da busticen, argia ez da ikusten, dirua ez da erosten, airea ez da aizacen, eta doloreak ez du minik egiten (...)»

G a b r i e l A r e s t i



# atzera begira

## Begoñako Errepublikako Udaletxea

### Urtzi Urrutikoetxea

Begoñako Eleizatea izan zenaren udaletxea daukazue argazkian. 1957an bota zuten, eta hogeita hamar urte lehenago arte udal honek 34. aulkia zeukan Gernikako Juntetxean, Bizkaiko beste udalerriekin batera.

Argazkian ageri da Udaletxeko Plazan egin ohi ziren merkatuetako bat, eta ondo igartzen ez bada ere, batek baino gehiagok antzemango zenuten kokalekua:

Eleizaren atzean zegoen, gaur parkea dagoen lekuan, eta honekin batera, Eleizak berak eta eskolak osatzen zuten hirigune garrantzitsuena, herriaren gainerako lur guztiak, baserriek eta txakoliek betetzen baitzuten. Gutxinaka Bilbo haziz joan zen, eta lehen zabalkundean Atxuri ingurua bereganatu ondoren, 1924an behin betiko desagertu zen Begoñako Eleizatea. Udaletxea 1856an eraiki zuten eta mende bat iraun zuen zutunik, harik eta 1957an bota zuten arte.



Begoñako Udaletxearen aurrean ospatzen ziren ganaduzkoak

# estudiante tunante baino... bizimodu hoberik ez da

Otsaileko azterketak gainean ditugula ikusita, kakalarria nagusitzen hasi da ikasleen artean. Batzuk euren aurreko emaitzak gainditzeko asmoz ari dira jo eta ke liburuen eta apunteen aurrean.

### Arrate Diez

Besteak, ordea, liburutegiak jendez gainezka ikustean, aldameneko tabernara hurbiltzen dira kafea hartzera.

Gainera, « Nazkatuta nago, azterketek gehiegizko agobioa sortarazten didate » esaten diote bazkari bero eta goxoa prestatzen goiz osoa eman duenari.


*«Azken aldian, tabernetan zuritoen ordez, infusio gehiago hartu ohi dela komentatzen dute tabernariak.»*

Azken aldian, tabernetan zuritoen ordez, infusio gehiago hartu ohi dela komentatzen dute tabernariak. Zergatik ote? Azterketen estres honek us-te baino eragin handiagoa du.

Azterketak noiz eta zelan egiten ditugun igogailuan komentatzeko

gairik aproposena izan ohi da askotan. Auzokideen galdeketa horiekin masailak gorrixka jarriko zaizkigu, baina lila kolorea hartzea ere posible da igogailuan auzokidea igotzeaz gain, aita eta ama gurekin igotzen direnean.

Nerbioz betetako garai hauetan pozik egoten diren bakarrak fotokopia dendetako ugazabak dira, ikasleok



Argazkia: Inigo Azkona.

N  
I  
H  
E  
B  
E  
N  
E  
A  
Z

B  
I  
L  
A

 **PUNTAKO KIROL MARKAK**

---

**SANTVTXY SPORT**  
KIROLAK

---

KARMELO, 9  
Tfnoa: 412 37 01 **SANTUTXU**

**berton**  
MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

**Hileroko informazioa eraz**

**OTXARKOAGAKO EUSKAL TXOKOA**


**«Berton» aldizkariarekin bat**

**Begoña aldeko aldizkari berriari ongi etorria!**

**SANTUTXUKO EUSKAL TXOKOA**

**«Berton» gaituzue nahi duzuenarako.**





zoramena-kin askotan zer fotokopiatu behar dugun ere ez dakigu eta.

Ikastea «rollo» bat dela guztiok dakigu, baina ez ote du merezi ikasle bizitzarekin jarraitzea, nahiz eta horren truke dirurik jaso ez? Gutxienez, ez dugu egunero 6:30etan jaiki beharrik, eta ordu horretan jaiki behar badugu ere, arratsaldeko 3etarako etxerako bueltan gatzoz siesta goxoa egitera.

Agerian dago guztiok gogoratzeko dutela euren ikasle garaia, azken batean, asteburu eta jai

egun libre gehiago ditugu lanean dabilenak baino, beraz, aisialdirako denbora gehiago.

«Nerbioz betetako garai hauetan pozik egoten diren bakarrak fotokopia dendetako ugazabak dira, ikasleok zoramena-kin askotan zer fotokopiatu behar dugun ere ez dakigu eta.»

Ikasle izatearena ez da «ahuntzaren gauerdiko eztula», baina bere alde onak aprobetxatzeko garaia da.

Etxean zein liburutegietan ikasi, ez ezazu denbora alferrik galdu, egindakoa nahiz eta gehiegi ez dela uste duzun, saiatu ahalik eta fruiturik onena eman dezan. Bota ordagoa azterketei!

# «Santutxuk bere enkantua dauka»

Orain Sopelan bizi den arren, nongoa den galdetean bilbotarra kontsideratzen dela esaten du batere dudarik egin gabe, eta bere auzoa Santutxu dela. Bertakoa sentitzen delako eta koadrila bertan duelako astero etortzen da Santutxura eta enkantu bereziren bat ere baduela iruditzen zaio. Ostiraletan, telebistako albistegiak aurkezten ikusteaz gain, Santutxun ere ikus dezakegu, guztion antzera poteatzen; Julio Ibarra da bera.

### ⇒ Aitziber Laskibar

**berton:** Zeintzuk izan dira kazetaritzaren mundura bidean zure lehen pausuak?

**Julio:** Praktiken bidez hasi nintzen, bekario moduan Radio Euskadin, unibertsitatean ikastentzen.

nengoenean; ikasten nuen bitartean praktikak egiten nituen. Geroago, oposaketa batzuk atera zituzten Euskal Telebistan lanean aritzeko, aurkeztu egin nintzen, eta gaitu egin nuen. Ikasten nengoenean bitartean, telebistan beste gauza batzuk egiten nituen; ez nuen informatiborik

«Praktiken bidez hasi nintzen, bekario moduan Radio Euskadin, unibertsitatean ikasten nengoenean; ikasten nuen bitartean praktikak egiten nituen. Geroago, oposaketa batzuk atera zituzten Euskal Telebistan lanean aritzeko, aurkeztu egin nintzen, eta gaitu egin nuen.»



Horrela hasi nintzen, gero informatiboetara, gero berriz irratira, irratitik telebistara bueltatu...

**berton:** Zer da beharrezko kazetari ona izateko? Zer aholkatzen diezu kazetari berriei edo kazetari izan nahi duten ikasleei?

**Julio:** Nire aholkurik handiena, ahal den neurrian dignitatea manten dezatela da; hori da inportanteena. Eta lan munduan sartzeko, ahal den neurrian zeure burua prestatzea. Hala ere, sarritan, nahiz eta titulu mordo edo ikasketa mordo bat izan, ez duzu lortzen.

egiten.



## Karmelo Ikastola

### «Santutxuko Ikastola»

Santutxuko Hezkuntza Proiektu euskalduna.

M.M. Pelayo, 12, 14. Tfnoa: 433 30 01 - 433 47 42. Faxa: 433 87 59

**ZORIONAK!** «BERTON» aldizkariari bere sorreran.

**PRENSA VIVA**  
ITURRIAGA

**CALENDULA**  
BELAR DENDA ETA DIETETIKA  
SANTUTXU, 40  
TFNOA: 433 81 47

**IturKopi**  
KOMUNIKAZIO ZENTRUAK  
Landaburu Baserria, 15 Iturrubide, 22. Tlf.: 416 94 71  
Tlf. eta Fax: 473 5472 Fax: 479 00 92  
SANTUTXU ALDE ZAHARRA

- Diseinua
- Fotokopiak
- Kamisetak
- Inprenta
- Informatika
- ...



«Nire aholkurik handiena, ahal den neurrian dignitatea manten dezatela da; hori da inportanteena. Eta lan munduan sartzeko, ahal den neurrian zeure burua prestatzea. Hala ere, sarritan, nahiz eta titulu mordo edo ikasketa mordo bat izan, ez duzu lortzen. Baina nolabait, ausartu eta lotsarik ez! Edozein tokitan sudurra sartu eta ea zorterik dagoen.»

Baina nolabait, ausartu eta lotsarik ez! Edozein tokitan sudurra sartu eta ea zorterik dagoen.

**berton:** Esaten den adinako eragina dute komunikabideek gizartearen?

**Julio:** Bai, noski!. Laugarren boterea dira. Horrexegatik egiten dira hainbeste eta hainbeste ahalegin medioak kontrolatzeko. Gaur egun ere komunikabideak kontrolatu nahia izugarri gertatzen den gauza bat da.

**berton:** Kazetariak beti esaten du egia?

**Julio:** Ez dut uste. Ez da gezurra izango baina egia oso-osorik ere ez. Ez dut esaten nire kasua denik, baina nik badakit hori sarritan gertatzen dela eta hori guztiz lotuta dago aipatutako presioarekin.

**berton:** Noizbait sentitu zara presionatua alderen batetik?

**Julio:** Gizarteak berak presionatzen zaitu. Kazetaria beti dago presioaren erdian, edo presioez inguratutik. Eta presio zuzenei dagokienez, denetarik dago; batzuetan gertatzen dira eta besteetan ez.

«Irratia eta telebista ezberdinak dira eta bakoitzak bere gauza dauka. Irratian ez duzu aurpegia ematen eta alde horretatik lasaiago ibiltzen zara. Baina beste alde batetik irratiak, telebistak baino premiazkotasun handiagoa du.»

**berton:** Zer nahiago duzu telebista, prentsa edo irratia? Zergatik?

**Julio:** Egia esan nik prentsa ez dut ezagutzen, ez dut inoiz lan egin prentsa idatzian, artikuluren bat izan ezik. Beti lan egin dut telebistan eta irratian, eta bakoitza bere momentuan polita da. Musikarekin gertatzen den moduan, lagunekin hortik irteten zaren agian nahiago duzu rock & rolla, eta etxean zaudenean pop-a. Irratia eta telebista ezberdinak dira eta bakoitzak bere gauza dauka. Irratian ez duzu aurpegia ematen eta alde horretatik lasaiago ibiltzen zara. Baina beste alde batetik irratiak, telebistak baino premiazkotasun handiagoa du. Edozein momentutan hitz egin behar duzu. Telebistan adibidez, badaude

informatiboak eguerdian eta arratsaldean, eta kitto. Baina irratian orduro izaten dira eta orduan tentsioa handiagoa da.

**berton:** Ze iritzi duzu gaur egungo komunikabideei buruz?

**Julio:** Ez da onegia. Denetik dago baina egia esan, nik buelta bat emango nioke honi guztiari.

**berton:** Ze galdera egingo zenioke zu bezalako pertsona bati kazetari moduan?

**Julio:** Ea lasai lo egiten duen.

**berton:** Eta lasai lo egiten duzu?

**Julio:** Saiatzen naiz. Egunero ez dut lortzen, baina saiitzen naiz.

**berton:** Zeri buruzko erreportaiak sikon bat egitea gustatuko litzaizuke? Zergatik?

**Julio:** Naturarekin loturik dauden gaiak adibidez, asko gustatzen zaizkit. Adibidez, ikerketa batzuk egiten ari dira Errioxa aldean duela gutxi azaldu diren prehistoriako aztarnen inguruan. Horri buruzko erreportaiak bat egitea gustatuko litzaizuke.

**berton:** Zer nolako eragina izan du ETB-n lanean aritzeak eta horrek dakarren ospeak, zure bizitzan?

**Julio:** Ba, denetik. Zure aurpegia ezauna izateak bere eragina dauka. Alde batetik, ondo egiten duzula pentsatzen dutenek bere respaldoa ematen dizute eta piropoak botatzen dizkizute. Baina beste batzuk, zuk egiten duzuna gustatzen ez zaienez, kontrakoa. Aurpegi ezauna denean, normalean kritikapean zabilta, egunero. Kritika onak direnean poztu egiten zaitu eta kontrakoa gertatzen denean, ba kontrakoa. Denetik dago.

**berton:** Zure seme-alabek zure lanbidea jarraitzea gustatuko litzaizuke?

**Julio:** Ez dakit; bakoitzak berea. Hori da nire maximarik handiena. Ez litzaizuke inportako; gustatuko balitzaio tira, aurrera, baina behartu inolaz ere ez.

**berton:** Nongoa kontsideratzen zara?

**Julio:** Bilbotarra, a tope.

**berton:** Ze iritzi duzu zure auzo-ohiaz? Zer da gehien eta gutxien gustatzen zai-zuna bertatik?

**Julio:** Gehien gustatzen zaidana da bertan koadrila daukadala, eta koadrila, lagunak oso inportanteak dira niretzat. Gutxien gustatzen zaidana aldiz, auzoaren itxura. Itxura aldetik ez

«Euskararen alde egiten den edozein gauza oso ondo dago. Gainera ni euskaldunberria naiz eta euskaldunberri bezala uste dut jendeak eduki behar duela erreferentzia bat praktikatu ahal izateko. Gainera, batez ere Bilbon nahiko zaila da jende euskalduna edo ingurune euskalduna bilatzea, eta horrelako gauzek lagundu egiten dute; horrelako aldizkari batek lagundu egiten dio euskarari eta euskal munduari.»

da batere erakargarria, baina tira, bere enkantua dauka; itsusiek ere badute zerbait. Hala ere, astero joaten naiz poteotxo bat egitera.

**berton:** Defini ezazu zeure burua hitz gutxitan.

**Julio:** Zerbaitetan sartzen naizenean, buru belarri, a tope sartzen naizen pertsona bat.

**berton:** Zer da bizitza honetan gehien apreziatzen duzuna?

**Julio:** Askatasuna.

**berton:** Munduko zein lekutara joango zinateke urte sabatiko bat pasatzera?

**Julio:** Kubara adibidez.

**berton:** Eta bizitzera? Zergatik?

**Julio:** Euskal Herritik kanpo, inora ez, hau izugarri gustatzen zaidalako, dituen gauza on eta txar guztiakin.

**berton:** Lanpara magiko bat agertuz gero, zein desio eskatuko zenizkioke?

**Julio:** Beno, topikoa esatea da, baina tira, hemengo bakea. Hemen dagoen arazoa konpontzea, bertan denok gustura egonaz.

**berton:** Zer deritzozu Begoña aldea bezalako ingurunean euskarazko aldizkari bat sortzeari?


**Julio:** Oso ondo deritzot; oso oso ondo. Euskararen alde egiten den edozein gauza oso ondo dago. Gainera ni euskaldunberria naiz eta euskaldunberri bezala uste dut jendeak eduki behar duela erreferentzia bat praktikatu ahal izateko. Gainera, batez ere Bilbon nahiko zaila da jende euskalduna edo ingurune euskalduna bilatzea, eta horrelako gauzek lagundu egiten dute; horrelako aldizkari batek lagundu egiten dio euskarari eta euskal munduari. Beraz, oso oso ondo deritzot.





# Begoñako baserriak argazki erakusketa batean bildu ditu ANTON LARRAZABALEK

Begoñako Errepublikako eremuan zeuden baserrien argazkiez osatutako erakusketa antolatu du Anton Larrazabalek, eta Santutxu eta Begoñako batzokietan egon ondoren, larrazabalgoan –Zurbanbarrin– dago gaur. Bilboren hazkundeak gehienak desagertarazi baditu ere, erretratuetaoek zutik diraute oraindik, eta duela gutxi arteko begoñatarren bizi-modua isladatzen dute.



Argazkia: Inigo Azkona.

Mende luzez nekazal herria izan zen Begoña, mendi magalean baserriz eta txakolinenez josita. Halere, «oso berezia zen, hiriarekiko hurbiltasunak nekazal-hirigune erdibidean kokatzen zuelako, begoñatarrei izaera berezi eta berezkoa emanetz», esan digu Larrazabalek. Aipatzen du adibi-

dez, karlistadetan liberalak Bilbon zeuden artean, karlistek Begoñatik setiatu izan zutela hiriburua.

Industrializazioarekin herria guztiz bateratu zuen Bilbok 1927an, eta Santutxu edo Otxarkoaga bezalako auzuneak sortu ziren, «baserriak desagertuz eta Begoñako izaera zeharo ahaztuz». Alde honetatik, kezu ageri da Larrazabal «nortasun seinale guztiak galdu egin direlako, herriko eraikinak edo euskera bera, eta gaur auzo hutsak baino ez dira aipatzen». Lanean bildutako baserriak gaur daudenak badira ere -oraintsu botatako sei izan ezik, Ekialdeko Saihesbidea dela eta-, sasoi batean askoz ugariagoak direla dio Larrazabalek, eta garrantzitsua litzatekeela horren gaineko ikerketa egitea. Baserri gehienak Arbolantxa-Egiriteta-Artxanda bitartean banaturik badaude ere, beheragoko mailetan ere badiraute zenbaitek eta bilduak beste falta litzatekeela uste du egileak. Edozelan, interesgarria izanda ere, lan mardul hau inon argitaratuta ikusteko zailtasun handiak daudela esan digu Larrazabalek.



# IBARSUSIKO AUTOBIAREN eraikuntza lanak oso kritikatuak izaten ari dira

Otxarkoagako Familien elkarte oso haserre agertu da Ibarsusiko Autobiaren proiektuarekin, eta juridikoki gai hau eramaten ari den moduarekin.



Argazkia: Inigo Azkona.

# GAS NATURAL enpresa banatzaileak iruzur egiten ari direla salatu dute

Bilbogas, Naturgas eta Euskadiko Gas Elkarte gas hornikuntzarako enpresak legea hautsi eta kontsumitzaileei iruzur egiten ari direla salatu du Herri Batasunak. Talde honek dioenez, enpresa hauek, gas hornikuntzarako kontratua sinatzean egiten dute lapurreta. Izan ere, legeak dioenez, kontratuan agertu beharko ez luketen bi kontzeptu agertzen dira bertan («Instalakuntza Ikusketa eta Alta Eskubideak»), eta honengatik hogeita bost mila pezeta inguru kobratzen dute.

Herri Batasunak dioenez, instalakuntzaren ikusketa egitea kontsumitzaileek duten eskubidea da eta banatzaile enpresari egitea dagokiona; hornitzaileak instalakuntza egitean errebisioa egiteko beharra du. Beraz, ez litzateke legezkoa izango hori kobratzea.

Gainera, horrelako kontzeptu guztiak Eusko Jaurlaritzak ateratzen dituen prezio publikoetan jaso behar dira legearen arabera, eta honek zehazten ditu prezioak, era berean. «Instalakuntza Ikusketa eta Alta Eskubideak» kontzeptua ez da bertan jasotzen eta beraz, ez da legezkoa hori kobratzea. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak prezioa zehazten ez duenez, ezberdin kobratzen dute leku bakoitzean. Horren adierazgarri da, Bilbon hogeita bost bat mila pezeta kobratzen duten bitartean Donostian adibidez herena kobratzen dutela.

Hori guztia dela eta, Herri Batasunak iruzur honen aurkako kanpaina bat jarri du martxan, eta gas naturalaren kontsumitzaileei kontratuaren lehen errebizioa ondo begira dezaten gomendatu die. Errezibuan «Instalakuntza Ikusketa eta Alta Eskubideak» kontzeptua agertuz gero, salaketa egitea gomendatzen die. Horretarako, inpreso batzuk prestatu ditu, HBk udaletxean eta Herriko Taberna guztietan utzi dituenak. Hala ere, salaketa egiteko asmoa izanez gero edo informazio gehiago nahi izanez gero, URKOA-EKA Kontsumitzaileen

Erakundearengana jotzeko dei egiten du, 4150050 telefonora deituz edo Bidebarrietan 14. portaleko 2. solairuan duen egoitzara joanez. Nahi izanez gero, HBk Udaletxean duen egoitzara ere jo daiteke, informazioa jaso edota salaketa egiteko. Era berean, Estatu espainiarrean kasu berdinekoak ziren aurkako 303 sententzia eman direla gogorarazi du.

**ANGEL**  
HARATEGIA - URDAITEGIA  
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

**MASAJE TERAPEUTIKO**  
L.A. CAMACHO  
411 32 20

**GABILTZA**  
E. K. M.

Zure publizitatea sartzeko:  
Aita Pernet, 9  
Bilbo - 48004  
Tfnoa: 473 54 48



## Santutxuko AUZO ELKARTEAK 30 urte bete ditu aurten

Santutxuko Auzo Elkarteak sortu zenetik hogeitamar urte pasatu dira jada. Hori dela eta, Auzo Elkarteak hainbat ekitaldi egin ditu urteurren hau ospatzeko asmoz. Denboran atzera eginaz eta Santutxuko auzoak azken hogeita hamar urteotan izan dituen gora-behera, aldarrikapen eta aldaketa nagusiak gogoratuz, Santutxu aldizkariaren zenbaki berezia plazaratu du, duela hogeitau urte sortu zen izen bereko aldizkariari omen eginez.



Argazkia: Iñigo Azkona.

Pantxoa eta Peio Berrio-Otxoako polikiroldegian

Ekitaldiei dagokienez, aurten Olentzaroren inguruan urtero egiten den ibilaldiari kutsu berezia eman nahi izan die, bertan parte hartzeko deialdi berezi bat eginaz. Errege egunean egin ohi den Sei Izar Herri Krosari ere bultzada berezia eman nahi izan die; gainera, aurten hogeitau urte bete dira Kross herrikoiei hau egiten denetik.

Ospakizun moduan antolatutako ekitaldi nagusia hala ere, abenduaren hogeita seiaren eskaini zen J.M. Bedaxagar eta Pantxoa eta Peioren kontzertua izan zen. Berrio-Otxoako ikastetxean izan zen bederatzi eta erdietetatik aurrera. Jende ugari hurbildu zen bertara (bostehun bat pertsona), baina antolatzaileek espero zutena baino gutxiago, halere.

Euskal Txokoaren laguntzaz prestatu zen ekitaldi honi gogoz itxaroten zion jendeak, mota eta adin guztietako jendea ikus zitekeen bertan. Halere, nahiz eta jendeak lehenagotik Pantxoa eta Peioren kontzertua ikusteko ilusio handia izan, Berrio-Otxoako polikiroldegian entzuten ziren komentarioak oso bestelakoak ziren. Izan ere, Pantxoa eta Peioren betiko abestiak entzun eta abesteko ilusioa zen nagusi, Oles ta Oles diskoko gabonetako abestiak entzutearena baino askoz gehiago, eta batzuen tristurarako hau izan zen nagusi kontzertuan. Bazen alboko tabernara irten zenik ere, eta kontzertura itzultzera zihoazenean, barrea ezin ezkutatzuz, «goazen berriro mezatarara» ziotenak.

Azken laupabost kantuak, espero ziren horietakoak, betikoak izan ziren eta entzuleek, txaloez lagundurik, ezta iriak urratu beharrean abesteari ekin zioten. Berrogei urtetik gorako bati baino gehiagori malkoak ere jausi zitzaizkion, duela hogeitau urte leku berean eta abeslari berberekin Espainiar Poliziaren Nazionalak festa hura bortizki nola zapuztu zuen gogoratuz. Baina jendea berotu eta gustura kantari ari zenean, kontzertua bukatutzat eman zuten abeslariak. Hala ere, jendearen txalo, oihu eta «beste bat»-en eskaerak beste pare bat abesti kantatzera behartu zituen Pantxoa eta Peio. Amaiera polita izan zen, baina Gabonetako kantuen errepertorioa asko laburtu behar zutela aurrikusi behar zuten abeslariak.



## Herri Kurdoarekiko ELKARTASUN ASTEA Santutxun


Urtarrilaren 10etik 17ra bitartean, Askapena eta Kitto Kultur Elkarteak antolaturik, Kurdistango egoera hobeto ezagutzeko aukera izan da Santutxun. Aste honen barnean hainbat ekitaldi egin dira, hala nola hitzaldia, dokumental emanaldiak, pelikula emanaldia, eta bazkari kurdo bat ere bai.

Larunbat arratsaldean eman zitzaion hasiera elkartasun aste honi, Herri kurdoari buruzko dokumental batez. Asteartean «Kurdistano, ahaztutako herria» izenburupean hitzaldi bat eman zen Begoñako Udaltegian. Hitzaldia emateaz, Kurdistanera hainbat bidaia egin dituen eta hango egoera oso ondo ezagutzen duen Askapenako kide bat arduratu zen.

Asteazkenean, urtarrilak 14, Nazioarte mailan hainbat sari irabazi dituen Yilmaz Güney zuzendariaren «Yol» filmea ikusteko aukera izan zen. Ostegun arratsaldean, berriz, herri kurdoaren alderik krudelenei buruzko dokumental bat eskaini zen. Bertan, desagertutako gazteen amak nola biltzen diren azaltzen zen, baita poliziak sistematikoki erabiltzen duen bortizkeria ere.

Larunbatean aldiz, bazkari kurdo izan zen protagonista. Sukaldari kurdo batek prestatutako bertako bazkari tipiko bat eskaini zen mila pezetaren truke. Lehen platera «Sarma» izenekoa izan zen; hau da, mahats hostoak haragiz beteta. Bigarren platera «Türlü» izan zen, «Bulgur-ez» lagundurik; hau da, barazkiak arkumez eta gari semolarekin. Postrea aldiz, «Baklava» izan zen; intxaur eta eztiz beteriko hojaldrezko pasteltxoa. Eta azkenik, «Çay» edo tea. Bazkari beneratua bitxia, eta hau dastatzera hurbildu ziren berrogei bat pertsonen artean arrakasta izan zuena. Ondoren, arratsaldean, jai kurdo antolatu zen Kitto tabernan.

Antolatzaileek azaldu digutenez, oraingo aste hau ez da ekintza isolatu bat izan, Kitto Kultur Elkarteak herri zapalduetako duen elkartasun politikaren beste adierazgarri bat baizik. Orain arte, beste herri zapaldu batzuei eskainitako hainbat ekitaldi eginak dituzte, hala nola Kuba eta Peruri eskainitakoak. Eta aurrerantz ere, elkartasun politika horrekin jarraitzeko asmoa dute, egoerak horrela eskatzen dien heinean.



Kurdistango errefuxiatuak



## OTXARKOAGAKO URBANIZAZIO PROIEKTUA laster da martxan

Martxoaren lehenengo astean hasiko dira Otxarkoagako urbanizazio lanak. Bilboko Udaletxeak 285 milioiko aurrekontua du, Pau Casals, Ugarte eta Zizeruene kaleak hartzen dituen proiektua aurrera eramateko. Hamar etxe bloke daude tarte horretan. Obrak hasten direnetik, zortzi hilabetez irautea aurrikusten da. Proiektuaren barnean azpimarragarriena, errepideen konponketa eta aparkaleku berriak eraikitzea da.

Otxarkoagako urbanizazio plan hau hainbat urtez geldirik egon ondoren dator berriro. 1989an hasi zen, MOPUK eraikiriko etxebizitzaren berriztatzea egin zenean, hutsuneak edo akatsak 1961erako ezagunak baziren ere, ea auzoaren sorreratik, alegia. Urte luze hauetan MOPUK ea konponketarik egin ez duenez, auzoko urbanizazio tamalgarria, txikitutako kale eta eskailerak, desagindako lorategiak, trafikoko eta aparkamendu arazoak, erabilitako material eskas eta eraikuntza kaxkarrak agerian agertzen dira. Horren aurrean, Viviendas Municipales Udal enpresak plan honen eginbehar premiazkoenak zehaztu ditu.

Otxarkoagako Familien Elkartearen ustez, Udalak ez du seriotasunez hartu plan hau, urte hauetan guztietan Otxarkoagako azaleraren %15a besterik ez baitu berritu. Hauen iritziz grabeena zera da: duela hogeita hamasei urtetik datozen akatsak zuzentzea dela egin beharrekoa, arazo berrien konpontzea egin ordez.

Europatik datozen diru-laguntzez baliatuz Lan Ekintzatik datorren plan berriarekin ere ez dira oso ados agertu Auzoko Famili Elkartekoak. Hauen ustez, honek formazio plan bat izan beharko luke; hau da, lanetan inbertitzeaz gain, langileak formatu beharko lituzke. Eta Otxarkoagako Familien Elkartearen iritziz, auzoko langabetuak okupaturik mantentzeko baino ez du balioko, benetako inbertsioen inguruan dudak sortaraziz.

## LEZAMAKO TRENBIDE ZAHARRA kalean, kirolgune berria

Lezamako Trenbide Zaharreko kirolgunea, alde honetako auzokideen eskaera zahar bat da, nahiz eta hasiera batean kiroldegia eskatzen zen. Hainbat urteren ondoren, 1996. urtean Bilboko Udalak dekretuz, proiektuak aurkezteko epea zabaldu zuen, eta berezko tramiteak egin ostean, pasa den urteko urrian hasi ziren lanak. Hauek amaitzeko sei hilabeteko epea dago. Beraz, 1998.eko martxorako erabiltzeko moduan egongo da, ez bada inolako atzerapenik gertatzen, behintzat.

Kirol gunea, lehen hondakindegia zen lekuan kokatuko da, Artxandako ibarbide batean, mendialde honetara doan Landeta Bidearen parean. Hala ere, bada arazoren bat ere, gune horretan, gaur egun jendea bertan bizi den baserri bat baitago.

Berrogeita hamazortzi milioitik gorako aurrekontua du proiektu honek. Bertoko gune guztiak aire zabalean egongo dira. Hauek izango dira kirol esparruak: futbito (zein beste kirol batzuetarako) zelaia, frontoia, saskibaloia zelaia eta ping-pong mahai bi.

Honekin batera inguru osoko hirigintza proiektu bat aurrera eramango da (argiak, ubideak...) eta horretarako mendi zati bat botako da. Era berean, zuhaitzak landatu eta eserleku, iturri zein lorategiak ere egingo dira.

## Mendiak eraman zituen SEI IZARREN omenez, mendi irteera

Urtarrilaren seian hiru urte bete dira sei gazte santutxuar Balaitus mendiak irentsi zituenetik; elur-jauzi batek azpian harrapatu eta heriotzara eraman zituenetik. Orduztik, gazte horien koadrilak antolaturik, mendi irteera bat egiten da urtero, Asier, Arrizen, Mikel, Ibai, Ikerne eta Ezkerren ohitura onak jarraituz eta oraindik ere Santutxuko gazteen artean irauten dutela erakutsiz.


Aurten Tologorri mendia izan da lagunek aukeratutakoa. Urtarrilaren hamaikan izan da zita, goizeko zortzietan Basarrate kanpan. Igandea izanik, gazteen aurpegietan logura nabari zen arren, batzuk zortziak puntuan eta alperrenak hogeitatu minutu berandu, baina azkenean koadrila majoa bildu zen mendira joateko prest.

Jendea kotxeetan banatu, eta Urduñarantz abiatu ginen. Mendia igotzen hasi orduko taldetxoak sortzen hasi ziren, bakoitzak bere erritmoa jarraituz. Aldapa batzuk gogorak izan ziren, markatutako bidetik joan beharrean, mendian gora, zuzen-zuzen joan ginela kontutan hartuz. Baina tira, umorez eta pazientziarekin hartu, eta aurrera! «A ze astakirtenak garen!» edota «Juanjo zena bezala igo gara eta!» bezalako komentarioak entzun zitezkeen barre artean.

Tologorriko gailurrera iristean, motxilan edo gerrian generaman arropa guztia jantzi, azkar-azkar argazkia atera, eta berehala jaitsi ginen magal batera; haizeak eraman edo izoztuko ez gintuen leku batera. Hainbestekoa zen presa, ez zitzaiela atzetik zetozen gainontzekoei itxaron ere egin. Multzorik handiena iritsi zenean, argazkia atera, eta korrika behera.

Ondoren, babesean jarri, eta oraindik eguerdiko hamabiak inguru ziren arren, bazkaltzeari ekin genion, orduari begiratu beharrean ohiturari jarraituz, oraindik goizegi bazen ere. Orain bai, talde osoa bildu ginen, berrogeita hamar bat lagun.


Han ere haizeak jotzen zuela eta, babes handiago baten bila ondoko borda batera joan ginen. Han, eguraldi ona aprobetxatzen egon ondoren, jaitziera zati batean behintzat «Juanjoren erara» jaitsi eta ibilaldiari amaiera Urduñako taberna bat leporaino betez eman genion kafea hartuz, hizketalditxoak mantenduz, baita barrealdi batzuk eginaz ere, baina beti, han biltzen gintuen arrazoia burutik kendu gabe.



Argazkia: Kaikumania.

Tologorri atsedena hartzen





Argazkia: Iñigo Azkona.

## «MINA DEL MORRO»ko lanak aurrera doaz

Lehen proiektua atera zenetik hainbat urte pasatu badira ere, ez da hainbeste denbora lanak hasi direnetik. 1990ean erabaki zen mozio bidez Boluetako alde honetarako hirigintza plangintza baten beharra zegoela. Ordutik, asko izan dira aurkeztutako proiektuari buruzko zalantza eta alegazioak. Hasieratik egon diren alegazioak izan dira gerora arazo gehienak sortu dituztenak. Hauek izan ziren lehen hiru alegazioak: Etxebizitzen ordez parke publiko eta zona berde handi bat eraikitzea bertan. Parke hau, kirol eta kultura arloko ekipamenduz horniturik egotea eskatzen zen, era berean.

Bigarren puntua da gaur egun arazo eta aurkako mugimendu gehien sortzen duena; bariantea, alegia. Bariante honek izugarriko kaltea egingo lioke ekologiari, proiektu honen aurkakoek azaldu izan dutenez.

Azkenik, etxebizitzak eraikiz gero, hauen kopurua gutxitzea eskatzen zen. 1.165 etxebizitza eraikitzeke asmoa dago, eta hau gehiegizkoa da, alegazio hauek aurkeztu zituen taldearentzat. Hauen ustez, Bilbon, hutsik etxebizitza asko daude, eta hauek erabiltzea izango litzateke egokiena. Bestalde, etxebizitza horiek eraikitzen badira, beharrik handiena dutenentzat izan behar-ko lukete, etxebizitzek gaur egun duten prezio altuagatik, etxe baten jabe izatea ezinezko zaienentzat. Horretarako laguntza publikoak eskatzen dituzte. Lehen alegazio hauek, Herri Batasunak aurkeztu zituen, baina gerora izan dira alegazioa aurkeztu duten talde gehiago ere.

Santutxu Hockey Taldeak, HBK eta Santutxu Futbol Klubak aurkezturiko alegazioak baztertu egin ziren. Santutxuko Famili Elkarteak eta San Joakin auzoko ordezkari batzuek aurkeztutakoak partzialki onartu ziren; hala ere esan behar da apenas izan zutela eraginik proiektuan. Azkenik, Abusu Ikastolak eskatzen zuen ikastetxe berri bat eraikitzearen proposamena onartu zen.

Lautan laburbildu daitezke ondoren egindako alegazioen punturik garrantzitsuenak:

- 1.- Etxebizitzen kopurua gutxitzea eta hauek laguntza sozialak izatea.
- 2.- San Joakin auzoko berriztatze eta urbanizazio plangintza beharra aurrera eraman dadin, auzo hau ere proiektuan sar dadila.
- 3.- Plangintza honetaz eztabaida sakonago bat eman dadila, lurraldearen iparraldea asko dentsifikatzen baita, hegoaldea alde batetara uzten den bitartean.
- 4.- Ekipamendu sozial, kultural eta deportiboez hornitzea.

Lehen eta hirugarren puntuak baztertu egin ziren. Bigarren puntua nolabait konpontzeko, San Joakin auzorako sarbide bat eraikitzea erabaki zen. Laugarren puntuari dagokionez aldiz, ekipamendu sozial, komertzial eta irakaskuntzazkoak eta kirola egiteko zabalik egongo den parkea egitea onartu zen.

Azkenik proiektua honela geratu da: hiru pabiloitan banatuko da zona. Lehenengo bietan etxebizitzak izango dira nagusi, komertzioak hauekin batera egingo dira, eta etxeartean parketxoak egingo dira. Ekipamendu sozialeko hornikuntzak ere egongo dira. Bi poligono hauek boulevard handi batez lotuak egongo dira. Hirugarren poligonoan aldiz, ez da etxebizitzarik egongo eta parke publiko bat izango da nagusi, eraikin txiki batzuk ere onartuz.

Gaur egun, lanak aurrera doaz eta jada ez dago Mina del Morroko proiektua aldatzeko aukerarik. Hala ere, oraindik zalantza batzuk geratzen dira, gauza batzuk zehaztu gabe baitaude. Adibidez, bukatzeko data ez dago zehaztuta, ezta presupuestoa zenbatekoa izango den ere. Horrez gain, mesfidantza gehien sortarazten duena, benetan etxebizitzak laguntza sozialik izango duten eta etxebizitzen gainetik pasatuko den bariante erraldoiaren eraikuntza dira.

## KIRIKIÑO IKASTOLAK eraikin berria ireki du Txurdinagan

Kirikiño ikastolak duela bi urte hasi zuen zabalpen kanpainari jarraituz eta honek suposatzen duen leku falta dela eta, edifizio berria eraiki du Txurdinagako Zuatzu kalean. Orain arte Santutxuko Torre Gorostizaga kalean zegoen ikastetxearen ordezkotako izan nahi duen honek, lau mila eta berrehun metro karratutako azalera du; orain artekoa baino dexente handiagoa da beraz.



Argazkia: Iñigo Azkona.

Bi urtera arteko haurrez gain, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza dabilzanak dira bertan lehenik sartu direnak, eta kurtsoa hasi denetik, bostehun haur baino gehiago dira eguneroko ikasgaiak eraikin berrian jasotzen dituztenak; kopuru handia, Kirikiñok bere osotasunean bederatziehun bat ikasle dituela kontutan izanik. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek eta Batxilergo ikasten dihardutenek hala ere, oraindik Gabriel Aresti kalean dagoen ikastetxean jarraitzen dute.

1996. urteko ekainean hasi zen eraikuntza lan hau aurrera eramateak, hirurehun eta hirurogei milioiko dirutza gastatzea suposatu du. Aurrekontu hau ikastetxeko kooperatibistak diren bertako gurasoek ordaindu dute bere osotasunean. Zentro berri honek, hogeita hamahiru gela izateaz gain, liburutegia, psikomotrizitatea lantzeko gela berezia, bost patio eta gimnasio bat ere baditu.

Esan bezala, zuzendaritzak ikasle kopurua handitzeko duen helburua lortzeko pausu garrantzitsua izan da hau. Orain arte Kirikiño Ikastolak kurtso bakoitzeko bi gela zituen arren, aurrerantzean kurtsoko hiru ikasgela betetzea dute helburu, eta horretarako ezinbestekoa zen Santutxuko zentroa itxi eta hori ordezkatzeko lukeen beste eraikin handiago bat egitea.



Zure haur txikiarentzako eskola txikia:  
4 hilabetetik 3 urtera artekoentzako  
**HAURTZAINDEGIA.**

Zabalik: Goizeko 7<sup>1/2</sup> etatik,  
Arratsaldeko 7etara.

Talde txikiak. JANTOKIA.  
Tfnoa: 433 60 44

## AITOR Edariak

**San Miguel**

Martartu Pol. K/2, 10. zkia.  
Tfnoa eta faxa: 671 38 38  
**48480 - ARRIGORRIAGA**



# Zer iritzi duzu Metroari buruz?




**I z a s k u n**  
(Txurdinaga)

«Oso ondo dago. Leku guztiak hurbilago dituzu eta minutu batean edonon zaude. Askotan erabiltzen dut».



**K o l d o**  
(Otxarkoaga)

«Metroa ez da helduko leku guztietara. Periferiara ez da heltzen eta dirudienek kanpoan geratzen gara baina egia da aproposa dela bidaiak azkarrago egiteko».




**R o b e r t o**  
(Santutxu)

«Santutxurentzat nahiko ona da. Gainera niri partikularki oso ondo datorkit, geltoki bat etxe ondoan daukadalako».



**S u s a n a**  
(Bolueta)

«Oso ondo dago. Asko erabiltzen dut klasera joateko eta oso ondo datorkit».




**E m i l i a n o**  
(Txurdinaga)

«Ondo dago baina 10 minutu behar ditut hurbilen dagoen geltokira heltzeko. Txurdinaga eta Otxarkoaga artean irteera bat izan beharko luke Santutxu pixka bat urrun geratzen baitzait».




**I d o i a**  
(Bolueta)

«Oso garbia, kuriozosa, azkarra, eroso da eta gustukoa dut. Jende askorik ez dagoen orduetan hartzen dut eta autobusa baino hobeto datorkit».



**A n e**  
(Santutxu)

«Ondo dago. Geltoki guztiak hurbil geratzen zaizkit eta hori oso ondo datorkit».



**A r i t z**  
(Santutxu)

«Santutxun jarri dutenez geroztik ondo etorri zait. Askotan erabiltzen dut eta batez ere unibertsitatetik itzultzeko».

1998ko otsaila - 1. zkia.

# Sei Izar krossaren XX. edizioa

Inoiz baino partaide gehiago Santutxuko Sei Izar krossaren XX. edizioan.

Urtero bezala, Urtarrilaren 6an Sei Izar krossa egin zen Santutxun. Partaidetza inoiz baino handiagoa izan zen, 811 korrikalarik hartu baitzuten parte herri krossean. Eguraldi ona eta jai-giroa izan ziren nagusi XX. edizio honetan


### ☞ Zuriñe Uriarte

Santutxuko Sei izar herri krossa Urtarrilaren 6an egin zen, urtero legez. Azken urteotan kross honetan parte hartzera animatzen diren korrikalarien kopuruak gora egin du nabarmen eta krossaren xx. edizio honetan, inoiz baino altuagoa izan da partaidetza 811 korrikalarirekin.

Goizeko lehen orduetatik hainbat gizon, emakume eta haur ikus zitezkeen Santutxuko kaleetan beroketa ariketak egiten.

13 urtetik beherako umeen lasterketa goizeko 11etan hasi zen Basaraten. Unai Dortuondok 6,01 minutu behar izan zituen bi kilometroko ibilbidea bukatzeko, lehena izan zen helmugara iristen. Edorta Undabarrena, 2.postua lortu zuen korrikalari gaztea, segundu bat geroago ailegatu zen helmugara. Maite Artetxe lehenengo neska izan zen helmugara heltzen, horretarako 6,54 minutu erabili zituen. Haur guztientzat egon ziren opariak, nahiz eta saririk onenak helmugara iritsi ziren azkenengo hirurentzat izan ziren.

azkenengo haurrak bi kilometroak bukatu zituenerako, 11:30etan hasi behar zuen nagusien krosseko parte hartzaileak irteera inguruan ziren ibilbidearen 8.200 metroak korritzeko prest. Lasterketa burua Javier Castro izan zen une oro, baina azkenengo 500 metroetan Javier Galindo bere arintasunaz baliatu zen garaipena lortzeko. 27 minutu



Argazkia: Inigo Azkona.

Gazteak irteeraren zai, urduri.



eta 13 segundutan burutu zuen Galindok Santutxu eta Txurdinagatik pasatzen zen ibilbidea. Iazko txapel-duna, Jon Bilbao, antolakuntza lanetan aritu zen, arazo fisiko baten ondorioz ezin izan zuelako lasterketan parte hartu.

«Lasterketa burua Javier Castro izan zen une oro, baina azkenengo 500 metroetan Javier Galindo bere arintasunaz baliatu zen garaipena lortzeko.»

aurtengo edizio honetan elbarrituek ere parte hartzeko aukera izan zuten, Héctor Lozano izan zen maila honetan garaile.

Santutxuko Familia Elkarteak aurtengo krossa elkarteko kide eta krosseko ohizko korrikalari den Tasio Erkiziari eskaini zion, 1 zenbakidun dortsala eta eskutitz bat bidaliz gartzelara. Lasterketa hasieran isilune bat egin zen Ikerne, Ezker, Asier, Arrizen, Mikel eta Ibairen omenez, eta Juanjo Bastera eta Dionisio Sanz ere gogoratuak izan ziren.

eguzkia eta jai-giroa izan ziren protagonista eta hainbat pertsona hurbildu ziren goiz osoan zehar krossa ikusi eta korrikalariak animatzera.

E L K A R R I Z K E T A K

JOSEBA BASTERRA.  
Antolatzailea.

**berton:** Esanahi bereziren bat ematen al dio aurten krossak 20 urte betetzeak?

**Joseba:** Nahiz eta aurten Herri Kross hau sortu zeneko hogeigarren urteurrena izan, ez diogu esanahi berezirik eman nahi izan horregatik. Urte honek izan duen berezitasun bakarra agian ibilbide hau egingo den azken urtea dela da; errekorridoa aldatzeko asmoa dago. Beno, eta aurtengoa, despiste bategatik laburragoa izan dela.

**berton:** Nola prestatzen duzue egun berezi hau urtean zehar?

**Joseba:** Baimenak eskatzen nahiko goiz hasi behar izaten da; irailan. Eta gainontzean, antolakuntza daramagunok Errege Eguna baino hilabete eta erdi lehenago hasten gara bileretan dena prestatzeko. Normalean, hamabi bat lagun egoten gara antolatzen, baina kross egunean ehun bat behar izaten dira.

**berton:** Zerbait berezia du kross honek azpimarratzekoa?

**Joseba:** Oso herrikoia egiten dela. Iristen diren guztiei ematen zaie sari berdina eta ez da sari berezirik ematen. Duela urte batzuk kopak eta horrelakoak ematen ziren, karrera gehienguan egin ohi denez, baina jende bat horren aurka azaldu zen, eta eztabaida baten ondoren, benetan herrikoia izatearen filosofiar jarraitu behar zitzaioela erabaki zen. Horrela, opariaren funtzionamendu hori aldatu egin zen eta orduztik guztiei ematen zaie sari berdina, sari berezirik egon gabe, eta horrela bereizketarik egin gabe.

BEGOÑA GONZALEZ eta FATIMA ALVAREZ  
(Helmugara azkenak iritsitakoak)



Argazkia: Inigo Azkona.

**berton:** Parte hartzen duzuen zenbatgarren urtea da?

**Begoña eta Fatima:** Parte hartzen dugun lehen urtea da eta oso gogorra egin zaigu. Nahiz eta biok hemengoak izan, (Begoña Santutxukoa da eta Fatima Txurdinagokoa) orain arte ez dugu inoiz krossean parte hartu. Aurten animatu gara, baina oso gogorra egin zaigu.

**berton:** Inoiz parte hartu duzue beste krossean batetan?

**Begoña eta Fatima:** Ez, inoiz ere ez.

**berton:** Prestakuntza berezirik egin duzue?

**Begoña eta Fatima:** Ez gara batere entrenatu. Horregatik egin zaigu hain gogorra eta horregatik heldu gara azkenak. Baina nahiz eta gogorra egin eta nahiz eta azkenak iritsi, merezi izan du. Datorren urtean ere parte hartuko dugu. Baina hori bai, lehenagotik entrenatuko gara, azkenak ez izateko behintzat.

TODD PALMER eta ROB McGUINNESS  
(Australiarrak)



Argazkia: Inigo Azkona.

**berton:** Nolatan hartu duzue parte kross honetan?

**Todd eta Rob:** Behartu egin gintuzten. Hemengo lagun batzuen etxera etorri ginen eta krossean parte hartzen ez baguen ez zigutela txakolinik emango esan ziguten. Eta hemengo ohitura denaz, polita iruditu zitzaigun bertan parte hartzea.

**berton:** Zer iruditu zaizue deigarriena edo gehien gustatu zaizuen?

**Tedd eta Rob:** Deigarriena, aldapak izan dira; aldapa gora eta aldapa beheara, eta beste aldapa bat beheara eta beste aldapa bat gora, beste aldapa bat beheara, beste bat gora... Azpimarratzeko beste gauza bat, begira zegoen jendea izan da. Jende asko zegoen animatzen, txaloka... oso polita izan da. Rob-i gustatu ez zaion gauza bat izan da azken berrehun metroan gizon zahar batek aurreratu egin gaituela. Azken momentuan aurreratu gaitu eta irabazi egin digu. Praka urdinak zituen. Eta asko gustatu zaiguna, korrika egin ondorengo poteoa izan da. Australian ez da poteatzen eta hara eramatea gustatuko litzaike inbento bat da.

**berton:** Errepikatuko zenukete?

**Tedd eta Rob:** Asko gustatuko litzaike berriz ere etorri eta krossean parte hartzea, zeren egia esan oso ondo pasatu dugu hemen egon garen egunetan. Hala ere hanketako min handia dugu.

TXOKOLATEA, ERROSKOA ETA KROSSA

Unai Cuevas

Honelako kasuetan, goizetik jaiki eta ez da gehiegi gosaldur behar. Hala ere, kontrakoa egin dut: Berandutxo utzi ohea eta txokolatea eta erregeen eguneko erroskoa gosaldur dut sorpresatxoren bat aurkitzeko asmoz. Ezer ere ez!


Dortsala hartu eta irteera gunera abiatu naiz lasai-lasai. Umeen lasterketaren bukaera ikusi dut. Horieta bai gorputzaldia!. Irteerara heldu eta jendetzaren artean beroketa ariketak egin ditut, baina ez gehiegi, bestela ...ezin korrika egin.

«Bacalao» musika jarri dute jendea animatzeko, «Goazen denok batera...». Bai! Bat-batean denok batera abiatu gara baina bakoitza bere erritmora, noski. Pixkanaka-pixkanaka berotzen ( eta nekatzen ) joan naiz hala-holako abiada mantenduz.

Eguzkiak gogor jotzen du kaskarrean eta hau gutxi bada txokolateak eta erroskoak urdailean. Ez nuen hainbeste osaldur behar! Datorren urtean gutxiago gosaldur dut. Baina orain oraingoak eta hurrengo urtean gerokoak.

Urdailekoa ahaztuta eta jendearen animo txaloekin ibilbidea errazago bukatuko dut eta beraz, animo!. Gutxi geratzen zait bukatzeko baina leher-tuta geratzeko ere gutxi. Ezkerretik zerbait somatzen dut eta begiratu ostean ni baino 20 urte gutxienez zaharragoa den gizon bat ikusi dut aurreraka ziztu bizian. Nola? Ezin daiteke izan! bere atzetik abiatu eta ohorea, harrotasuna, dignitatea mantentzearen, bere parera heldu naiz. Azeleragailua zapaldu eta berriro ere ospa egin dit ( formula 1eko lasterketa dirudi, ez? ). Jarraian bere ingurura hurbildu aurretik helmuga etorri zait gainera. Azkenean! Uste nuen ez zegoela helmugarik. Hantxe bertan, oroigarria, sorpresatxoa (gozokiak!) eta oxigenoa hartu eta jendetzaren barnean murgildu naiz. Urteek eta kiloez ez dute pisatzen, parrandek, aldiz, bai. Eta izugarri gainera!.

Jendetza horren artean edari freskagarri amerikar bat banatzen dute. Bertara hurbildu eta basotxo bat berehala irentsi dut. Ene bihotzak bere ohiko erritmoa hartu du, eta berarekin batera nik ere bai. Ikasgaia ikasia dut hurrengorako: Ez dut txokolaterik edango eta ez dut erroskorik jango ( errege eguneko erroskorik noski!). Zein erraza den zure ezintasunaren errua gosari bati leporatzea!.



Jabier Galindo, azken metroak egiten.

Argazkia: Inigo Azkona.

B I L A B I L A B I L A B I L A B I L A



B I L A B I L A B I L A B I L A B I L A





# Sei Izar Kross eguna Santutxutar batentzat

Beti legez, Errege eguna izanik, mugimendua somatzen da etxean goiz-goizetik. Bederatziak alderako altxatu, gosaldtu eta alaitasun edo urduritasun berezi bat nabaritzen da etxeko guztien artean. Eta zein da ba arrazoia? Sei Izar krossa dela gaur.

## Aitziber Laskibar

Aurten nire ahizpa kanpoan dela eta, familiako inork ez du parte hartuko. Ahizpak, nahiz eta normalean korrikarik egiten ez duen, kross honetan parte hartzeko ohitura du. Baina aurten kanpoan da. Ni alfer xamarra naiz eta ez naiz kapaz sentitzen horrenbeste kilometro korritzeko. Gainera, korrikalariak animatu eta txalotzeko ere beharko da jendea, ez? Nik filosofia horrekin hartzen dut parte kross berezi honetan, nahiz eta jendeari hori esaten diodan nean barre egiten didan.

Aurten, nire ahizparen faltan, bi australiar ditugu etxean krossean parte hartzeko prest. Errege egun bezperan iritsi ziren, eta hurrengo egunean kross herriko bat izaten zela azaldu zitzaizkien. Hasieran, barrez, beraiek ere parte hartuko zutela esaten zuten. Baina aitak hitza hartu zien, eta edonork esaten zion gero broma bat zela! Euskal Herriko produktuak probatu nahi zituztela eta, sagardoarekin afaldu zuten. Askok gustatu omen zitzaizkien. Afaldu ondoren, koparen bat hartu nahi zuten galdetzean, hemengo likore tipikoren bat edo bazegoen, probatu nahiko zutela esan zuten eta patxaran pixka bat edan zuten. Nola egiten zen galdetu ondoren, hau ere asko gustatu zitzaizkiela esaten zuten behin eta berriz.

Normalean hamaiketakoarekin edaten den beste edari bat ere bagenuela azaldu zien aitak: txakolina. «Bihar probatuko dugu krossa korritu ondoren!» esan zien aitak. Orduan hasi ziren urduri jartzen bi australiarrek, krossarena seriotan zihoala ikustean. «Beno, eta ez baduzue krossa korritzen, ez dago txakolinik, eh? Parte hartu eta bukatu egin behar da!». Hauek izan ziren aitaren hitzak, eta txakolina probatzeko irrikitan zeudenez, korritzeko prest azaldu ziren.

Baina orduan erropa egokiak bilatu behar zitzaizkien. Ni, nire intentzio on guztiarekin etxean zeuden praka labur guztiak ateratzen hasi nintzen. A ze algarra egiten zituzten praka labur pare bat ateratzen nien bakoitzeko! «Hauek dira ba korrika egitekoak» esaten nion neure buruari. Gainera, kolorea ere normala zuten; bata beltza eta bestea gorria. Ez zen ba beste munduko gauza! Etxeko praka labur guztiak atera ondoren, zera galdetzen digute: «Ez al duzue praka handiagorik? Luzeak eta zabalak nahi ditugu. Hankak oso zuriak ditugu eta ez ditugu erakutsi nahi». Azkenik, txandal bana atera eta horrela konformatu ziren.

Goizean, hamarretarako kalean nintzen. Gauza batzuk prestatu eta giroa ikusi nahi nuen. Gainera, australiarrek apuntatu egin behar nituen, eta Rob-entzat 43 zenbakiko plaiara batzuk bilatu. Antolatzaile batzuekin ere hitzegin genuen berriren bat ba ote zegoen ikusteko; ez zegoen nobedade handirik.

Hamaiketean haur guztiak irteera puntuan zeuden, korrika hasi

baino lehen jada lepoa luzatuz, lehenago iritsi nahiaz bezala. Irteteko unea iritsi zenean, sprint batean bezala atera ziren haurrik gehienak, aurreko lagunari irabazi nahian. Halere, bazen gurasoek lagunduriko haurrik ere, eta hauek pixka bat kontrolatuago, indarrak neurtuz edo aritu ziren, gainontzeko haurren urduritasunari jaramonik egin gabe. Berehala iritsi ziren helmugara lehenak; sei minutu justu paseak zirenean. Helmugako sarien poltsa jaso, eta gustura nabari zitezkeen haurrak, aurpegia gorri-gorri zutela, baina irribarreak apaintzen zielarik, poltsari begiratze hutsarekin.

Nagusien txanda hamaika terdian izan zen. Ezker, Ikerne, Mikel, Ibai, Asier eta Arrizenen omenez, Juanjo Basterraren omenez eta Dionisio Sanzen omenez minutu bateko isilunea egin ondoren hasi ziren, batzuk beraien markak hautsi nahian eta beste batzuk iristearrekin konformatuz.

Nire modukoak, aldiz, alde batetik bestera korrika, atleta horiek puntu ezberdinetan ikusi eta animatzeko prest. Hala ere, urtero gertatu ohi zaidanez, aurten ere galduta ibili naiz. Beti ibiltzen naiz alde batetik bestera, korrika, krosslariak non ikusiko, eta beti gertatzen zait berdina; edo ni heldu naizenerako ihes egin dutela, edo nik uste nuen lekutik ez direla pasatzen... Baina tira, ahal izan duguna egin dugu, eta harrapatzen genituenean ezagun guztien izenak oihukatu, txalo egin, eta aurrera. Gehienek begiratu eta irribarre egiten dute, beste batzuk neke aurpegia keinu batez exageratzen dute, eta Todd eta Robek adibidez, «Aupa Australia!» oihukatzen zuten. Helmugara iristean, denak izerditan eta lur jota ikus daitezke, baina gustura eta pozik.

Ondoren dator onena australiarren iritziz behintzat; poteoa. Animatzen egon den jende guztia eta korrika aritu direnak (batzuk dutxatu ondoren eta besteak dutxatu ere egin gabe) eguerdiko poteotxoak egiten dute, bazkaltzera joan aurretik. Oso giro ona sortzen da auzoan, eta aurten behintzat, trikitilari eta guzti ibili gara, festa giroa nagusitu da Santutxun, Sei Izar Krossaren aitzakiaz.



Argazkia: Inigo Azkona.

# Tanatorioa Lasan, bai ala ez!

1996ko ekainaren 7an onartutako Lege-Dekretu baten bitartez hilerrien eta ehortzetxe zerbitzu sektorea liberalizatu egin zen. Honen ondorioz eta Bilboko Udaleko EAJ alderdiak bultzatuta Bilboko Hilerrien eta Ehortzetxe Udal Zerbitzua privatizatze bidean sartu zen.

Horrela Udalak -era zuzenean- kudeatua zen zerbitzua enpresa pribatu baten eskuetan uztera igaro da. Enpresa hau mistoa da, hau da, enpresa pribatuaren partehartzea %80koa da eta Udalarena %20koa.

Enpresa misto berri honek Basurton tanatorio bat eraiki du, Bilboko Hirigintza -Ordeñatze Plan Orokorrean («PGOU») zehaztuta dagoen legez. Honen proiektua egitea 40 milioi kostatu zitzaion Udalari.

Hau gertatzen zen bitartean Funeraria Bilbain enpresa pribatuak lehengo LASA ja-tetxeko lokalak erosi eta bertan tanatorio bat ezartzeko asmoa azaldu zuen, Udaleko Hirigintza saileko oneritzia jasoz.

Hala ere, honek auzokideen ezadostasuna sortarazi zuen eta tanatorioa bertan kokatzearen aurka jarrera adierazten hasi ziren, bai batzarrak eginez, bai mobilizazioak burutuz (udal-txetan bilkurak, manifestazioak auzoan, Etxebarriako parkean, ...) pankartekin, pegatinekin, ...

Honek guztiak Udalean kezka sortarazi zuen eta zenbait plenotan tanatorio horren kokapena atzera botatzeko eskarera egin zen, hala nola 1997.eko urriaren 21ean



Argazkia: Inigo Azkona.

Auzokideak Tanatoria jartzearen aurka.

egin zen plenoan, zeinean LASA ja-tetxe ohian tanatorio pribaturik ezarri ezin izateko, PGOU delakoan (zoru horren berkalifikazioaren bidez) aldaketa egiteko eskaera aurrera atera zen Talde Misto, Ezker Batua (IU) eta ICVren botoekin eta EAJren abstentzioarekin.

Baina PGOU delakoan edozein aldaketa egin ahal izateko 15 botu gutxienez beharrezkoak dira, eta pleno horretan horren alde 7 besterik ez ziren lortu. Ondorioz, moztioa deuseztuta geratu zen, eta are gehiago, beraz aurkeztean eta onartzerakoan Udala eta bozketan parte hartu zutenak botere desbiderazio bat eta prebarkazio delituan sar zitezkeen, Funeraria Bilbain enpresari lanak hasteko lizentziarik ematen ez bazioten (aldez aurretik oneritzia jaso zuelako).

Urtarrilaren hasieran auzokideak informatzeko eta hauen iritzia (tanatorioa bertan ezartzeko adostasuna edo ezadostasuna) adierazteko epea izan zen, eta

eurek tanatorioari ezetza eman zioten.

Beraz, egun dagoen egoera ondorengoa da: alde batetik Funeraria Bilbain lanak hasteko lizentziaren zain dago, eta bestetik, auzokideak tanatorioa bertan kokatzearen aurkako jarrerarekin tinko jarraitzen dute eta horrela jarraituko dutela diote.



# Santutxuk Hockey-an badu zeresanik

Santutxun badago hockey taldea. Gainera badu bere garrantzia eta historia Santutxuko kirol munduan. Gaur egun Iñaki Prados presidente duen taldeak, 60.eko hamarkadaren hasieran lehen urratsak eman zituen.

## Unai Cuevas

Etxebarria lantegiaren inguruan sortu zen eta hasiera batean bi talde zeuden: bat, Etxebarria lantegiko kooperatibarena zen, eta besteak Etxebarria zuen izena. Ondoren, krisia zela-eta, lantegia desagertu egin zen eta taldea Santutxuko dendari elkartearen eskuetara pasatu zen. Izen honekin 1980tik 1987ra bitartean jokatu zuen. 1987tik aurrera bartzorde kudeatzaile batek hartu zuen eta Santutxu Hockey Taldea (Santutxu H.T.) sortu zen. Gaur egun izen bera mantentzen du.

Santutxu H.T.a bost taldek osatzen dute, maila ezberdinetakoak: Benjamin, Alevin, Juvenil, Junior eta Senior. Benjamin eta Alevin taldeak azkenaldian sorturikoak dira, eta beraz berriak dira Santutxu H.T.aren egituran.

Tituluei dagokionez, azkenengo sei urteak izan dira garrantzitsuenak. Senior taldea, urte bat 1A mailan egin ondoren, 1B mailara jaitsi zen. Hala ere, hurrengo bost urteetan txapelketa irabazi izan du maila honetan nahiz eta goiko mailara pasatzea lortu ez.

Junior taldearen kasua nahiko bitxia da zeren eta Alevinetatik Junior mailara heldu arte liga txapeldunak izan diren urtero. Gainera talde bera izanik Juvenil eta Junior mailatan, bi urtetan izan dira txapeldun maila bietan.

Juvenil taldeak, berriz, azken sei urtetan (jarraian) liga txapelketa eskuratu du.

Gaur egunekora bueltatuz, gaztetxoenen taldeek (bai Benjaminak, bai Alevinak) klasifikazioaren erdialdean



Santutxuko Hokey Taldea.

Argazkia: S.H.T.

*«Santutxu H.T.a bost taldek osatzen dute, maila ezberdinetakoak: Benjamin, Alevin, Juvenil, Junior eta Senior. Benjamin eta Alevin taldeak azkenaldian sorturikoak dira, eta beraz berriak dira Santutxu H.T.aren egituran.»*

dabiltza. Goragoko mailan, talde Juvenila bigarren doa Jolasetaren atzetik. Mailarik altuenetan, Junior eta Senior taldeak liderrak dira. Azken hauek (Seniorrak) Jolasetarekin berdindurik daude sailkapenaren goreneko tokian.

Hockey talde honen garapena ikusita argi dago arreta merezi duela. Bere gora-beherak ezagutu eta zuzenean

ikusitako baldin badituzu joan Etxebarria zelaira ( Juan de la Cosa eta Albacete kaleen artean) partidu bat ikustera.

Gure inguruneke (Mahatserria) edozein taldek bezala hockey taldeak ere animoak behar ditu. Eta ikusi dugunez, Santutxuk badu bere lekua eta garrantzia hockey-aren munduan.

# Mallona, Begoña aldeko futbolaren erdigunea

Mallonako futbol zelaia izen bereko eskailerak bukatzen diren tokian kokaturik dago. Begoña eta inguruko auzokideak bertara hurbiltzen dira astebururo futbola ikustera. Bertan hiru talde nagusik jokaten dute: Santutxu F.C., Danok Bat Batasuna eta S.D. Begoña.

## Unai Cuevas

Talde gehien duena Santutxu F.C. da. Maila ugaritan ditu taldeak. Talde garrantzitsuenak Erregional Preferentean jokaten du eta talderik txikiak 90. hamarkadako aurre-benjaminen mailan. Guztira, maila ezberdinetan aritzen diren 20 taldez osatua dago.

Bestetik, Danok Bat Batasunak 15 talde ezberdin ditu. Hauek ohorezko mailan dute lehen taldea, eta talderik gazteena aurre-benjaminena da.

S.D. Begoñari dagokionez, 9 taldez osatua dago. Talde nagusia lehenengo erregionalean dute eta talde gazteena Alevin mailan.

Beraz, ikusten denez, «futbol base» deiturikoak badu etorkizuna Begoñako ingurunean.



Argazkia: Iñigo Azkona.

Mallonako futbol zelaia.

**Kafe ANIZO KIA**

**1998ko OTSAILA**

- 01 igandea 17:00 "OLGETAN" haur jaia  
Transito taldearen bobongloak
- 08 igandea 17:00 "OLGETAN" haur jaia  
Bihar bobonglo taldea
- 12 osteguna 22:00 SKALARIAK  
BERRI TXARRAK  
GOK Jaia
- 13 ostirala 20:30 "JAIOKO DIRA BERRIAK"  
Ereintza antzerki taldea
- 15 igandea 17:00 OLGETAN haur jaia  
Gaztana pitorra palatzoak
- 17 asteartea 20:00 IHAUTEA:  
KAOSAREKIKO OREKAN  
J. A. Urdeltz eta J. A. Irigaray
- 19 osteguna 21:30 EVEREST 98.  
Bizkaiko espedizioa  
PATAGONIA  
Diporama, kontzertua...
- 22 igandea 17:00 OLGETAN haur jaia  
Transito taldearen inaute festa
- 27 ostirala 22:00 JUAN CARLOS PEREZ

San Vicente 2 48001 BILBO  
Tel: 424 4625 Fax: 424 2802

Laguntzailea: **BI-96.0-FM**  
-Bilbo Hiria Irratia-



# edabe magikoa

«Borroka galduetatik gatoz» poema bildumaren aurkezpeneko edabe magikoa.

## Arrate Diez

Egunerokotasunean finkatuz, iraganekoa ezin ahaztuz eta etorkizunera begira, Urtzi Urrutikoetxeak «Borroka galduetatik gatoz» poema bilduma argitaratu berria du.

Doinu goxoko musikak lagunduta, olerkiek benetan hunkitu zuten Artagan Kultur Elkartean bildutako jendetza.

Aurkezpena arratsaldeko zortzietan hasi, eta bertara heldu orduko, eszenariotxo baten gainean lau lagun zain zeuden beraien txanda noiz helduko ote.

Bibolinak, kitarrak eta perkusioak olerkiak biluztu zituzten eta Urtziren errezitaldiak giro ezin hobean murgildu gintuen.

«Euskal Herria eta gazteria uzartuz, poesia militantearen ordez, militantziaren poetika arakutzen saiatzen naz» dio Urtzik liburuko

olerkien inguruan. Hala ere, norberak bere irakurketa interpretatiboa egin dezala argi uzten digu Txurdinagako gazteak.

Maitasuna, grina, tentsioa, esperientziak, gazteria, drogak eta beste hainbat gai jorratzen ditu Urtzik «Borroka galduetatik gatoz» poesia liburuan. Hasiera eta amaierako olerkiek esangura berezi eta markatua dute, ez daude egunerokotasunean hain finkatuta, eta egotekotan era inplizitu batean. Erdikoak, ordea, zuzenkiago lot ditzakegu eguneroko esperientziekin.

Argiluna errezitaldiaren beste osagai erakargarri bat izan zen, olerki bakoitzak argiztapen berezia zuen eta horrek ekitaldiari misterio kutsua ematen zion.

Gainezka aurkitu genuen Santutxuko Herriko Taberna, eta entzulegoaren artean bazen «edabe magikoa» izeneko koktail berezia dastatzeko denbora gehiegi eman zuen baten bat ere.

Ikusi besterik ez zegoen eskenatoriaren ertz batean jezarrita zegoen andreak zeukan harridura aurpegia. Gaur eguneko gazteek zein motatako marketing-a antolatzen duten bere buruari galdezka akaso? «Gure gazte garaietan horrelako zerbait asmatu izan bagenu...».

Koktail basoak atzera eta aurrera bueltaka zebiltzan aurkezpenean, badirudi zorioneko koktelak arrakasta nahikoa izan zuela giroa berotzeko, dena dela, begiak eszenatoki gainean geneuzkan guztiok.

Ondo baino hobeto igaro genuen aurkezpen jaia eta Urtziri bigarren liburu bat argitaratzeko animoak ere eman genizkion.

Aurretik Urtzik bazeukan idazteko ohitura. Edozelan ere, Sortu Ta Sortuz Kultur Elkartearen laguntzaz egundoko aurkezpena antolatu zuten Natibitate egunerako.

# Famatua izatearen gazi-gezak



Urtzi Urrutikoetxea bere poemak irakurtzen.

Liburua aurkeztu zuenetik koadrilakoek gehiago ligatzen duela diote, baina Urtzik gezurretan dabilzala uste du. Poesia liburua argitaratu baino lehen ere nahikoa ligatzen zuelako ote da?

Umetxoak bera ikustean «flipatzen» dute eta gurasoengana doaz korrika boligrafo eske. Urtziren autografoa lortzeko. Dena dela, gazte mozkorrien eta «zomoroen txapa» sofritzeak ere badu bere meritua.

D E A K

D E A K

**dek** *Makindia!! zaituz !!*

Euskarak euskaldun egiten baitzaitu

OTXARKOAGAKO EUSKAL ESKOLA  
Auzo Etxea - 412 18 77

SANTUTXU EUSKAL ESKOLA  
Arbidea, 21 - 411 76 56  
P. Pernet, 9 - 473 14 60

**DAYTON**  
Reagge-festa taberna  
Santutxuko poteo gunean

**gasteiz**  
Allende P., 14. Tfnoa: 412 56 38

**aurrera bertón!**  
Pa... Yak baditu alternatibak  
demokratikoak noski!!

ZURE PUBLIZITATEAK BADU TOKIA

bertin




**K**ross egunean udaltzain bat bere motorrarekin zebilen korrikalariei bidea zabalduz. Bat batean, Txurdinagako parkean txakur bat agertu, munizipala motorretik bota eta haginka egin zion. Hain gose ote zen txakurra? Bere jabearen aginduak jarraitu ote zituen? Txakur-eroen kasu baten aurrean ote gabiltza?

**U**rtarrileko gau arrunt batean, Fika ka-lean, argia joan egin zen. Handik gutxira berriro joan zen. Eta handik gutxira berriro. Eta laugarren aldiz ere gertatu zen. Hau guztia 20 minututan besterik ez. Iberduero jolasean ote zebilen? Argindarra bere erara ote zebilen? Lapurren kontua ote?

**S**anta Clara kalean ikuskizun bitxi samarra bizi izan zen. Ez ohiko pertsekuzio bat gertatu zen. Aurretik, txakur bat korrikan, bere atzetik gizon bat, eta honen atzetik beste gizon bat bata zuriaz (albaitaria). Akzio ugariz beteriko eszena bat zen. Filme bat errodatzen Santutxun? Zergatik egiten zuen ihes txakurrak? Egia ote da txakur-eroen kontua?

**B**oluetan bere etxeko lurzorua konpontzen zebilen gizon batek ezusteko galanta hartu zuen. Hankak toki ezegoki batean jarri eta zer gertatu eta beheko solairura erori. Beheko solairua salmentan zegoen lonja bat zen. Beraz, ez zen inoren etxera baimenik gabe sartu. Lurrak irentsi ote zuen? Lonjan lapurtu nahiko ote zuen? Hain indartsua ote zen grabitatearen indarra?



# agenda

- ✓Otsailak 6, 7 eta 8 (asteburua): **ESKIATZERA EUSKARAZ**. Santutxuko Euskal Txokoak antolatuta 5.000 pezetaren truke eskiatzera irteera Arettera. Informazioa: 473 54 48 telefono zenbakian, astean zehar 6etatik 8etara.
- ✓Otsailak 13 ostirala: **Sortu Ta Sortuz Kultur Elkarteak antolaturik, Santutxuko SORTZAILE GAZTEEN GIDAREN AURKEZPENA**, auzoan. Jai sorpresa.
- ✓Otsailak 15, igandea: **MENDI IRTEERA** Peña Izagara, Santutxuko Mendi Taldeak antolaturik. Apuntatzeko egunak asteartea eta osteguna izaten dira 7etatik 9etara. Helbidea: Médico Antonio Egiluz 3, solairuartera.
- ✓Otsailak 21, larunbata: **BILBOKO IHAUTERIAK**.
- ✓Martxoak 1, igandea: **SANTUTXUKO IHAUTERIAK**.
- ✓Martxoak 6, ostirala: **SAGARDOTEGIRA IRTEERA**. Otxarkoagako Euskal Txokoak antolatuta. Informazioa: 412 18 77.
- ✓Ostiralero, arratsaldeko 8etatik aurrera: **KANTAK IKASTEKO TAILERRA** dohain, Santutxuko Euskal Txokoak antolaturik. Informazioa: 473 54 48 telefono zenbakian.

## O H A R R A :

Aldizkari berria garenez, oraindik zaila zaigu txoko guztietara heltzea. Beraz, Begoña, Bolueta, Otxarkoaga, Santutxu, Txurdinaga edo inguruan ekitaldiren baten berri izanez gero, horren berri ematea eskertuko genizuke, denona den agenda hau ahalik eta hobekien osotzeko asmoz. Horretarako, utz ezazu mezua 4735448 telefono zenbakian edota bidali postaz Berton-en izenean, Aita Pernet 9ra, edo posta elektronikoko helbide honetara: [berton@mail.com](mailto:berton@mail.com).

Agendaren berri emateaz gain, aportazioren bat, ideiarene bat, zalantzaren bat edo beste edozein gauza komentatu nahi izanez gero, erabil ezazue bide berdina, aldizkari honek guztiz zabala izan nahi baitu eta gustura jasoko baititu zure aportazioak. Besterik gabe, alde zurea esker mila.

## HOROSKOPOA

**Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.  
Non utzi duzu zure maitea? Egon zaitez adi! Sukaldean badago, seguruenik berakatzat txikitzen ibiliko da salda beroa prestatzeko. Otsailean ilargiarekin bat, berakatzak izpiritu gaiztoak uxatzen ditu, beraz, ez gehiegirik jan askarian, afariak merezi du eta.

**Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.  
Burutik sano ez zaudela diotsute? Zorroa buruhautez beteta edukiz gero, edonork galtzen du burua. Aprobetxatu beherapenak eta eros ezazu zorro berria.

**Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.  
Eskailerak binan-binan igotzen badituzu, aurreko kapituluaren laburpena ez duzu galduko, ez horixe! Baina, hobe duzu banan-banan igotzea, hurrango telesailen gertatuko den guztia ikusi duzu eta. Arineketan ibiliz gero arinago jausiko zara.

**Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.  
Komunera joateko premia duzula? Bufa! Eta zelakoa gainera! Azkenaldiko txizalari demonio hori kentzeko edan ezazu mostoa limoia eta olibarekin. Honela txizalariak gainera, kalarri ere izango zara. Utziezu zitrikoei tripetan lasai ibiltzen, baina, sartu esne zopa eta ur bedeinkatua ere dietan.

**Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.  
Kartetan egiteko esan dizutela? Lasai hartu, aspaldi dituzu lau karta gehiago besapean, eta bazen garaia jokoan hasi eta kartak mahaian ipintzeko. Dena dela, zuhur ibili gero! Kontrarioak zortzi errege ei dauzka eta.

**Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.  
Noiz utziko duzu umore txarra alde batera? Hego-mendebaldeko haizeak gehiegi jo zaitu. Atera punta zorrotzeko guardasola, eta haretzek zentzutuko zaitu.

**Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.  
Urtea bukatzeaz dagoela uste duzu? Gabonzaharreko azken mahats alea ahoan duzu oraindino. Haginak garbitzea komeni zaizu, urte berria hasi dela konturatzeko bada ere. Gogo lehengo urtean duzula jarraitu gura baduzu, ondo, baina gorpuz behintzat aurtengoan sartu.

**Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.  
Leihotik zelako eguraldia dugun begira? Ederto! Baina noizean behin gortinak garbitu, zerua ez baitago beti lainotuta.

**Sagittarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.  
Ile urdinak agertu zaizkizu? Bazen garaia, egunero milaka ile hazten dira, eta baten bati urdina izateko pribilejioa eman behar zaio. Zorionak!

**Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.  
Ametsetan deabruak dabilzkizu buruan? Ez horregatik izutu! Deabruak barik aingeruak balira, zure burua noria baten antzera jira eta buelta hasiko litzateke zorabiatu arte. Ifernuan ere lagunak edukitzea ez da kontu txarra gero!

**Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.  
Mendia etxetik gero eta urrunago daukazula? Trankil bada! Hankak laburtzen hasi zaizkizu lagun, izan ere, dutxan denbora gehiegi ematen duzu, mendiek oraingoz ez dute hegan egiten eta.

**Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.  
Bihotza aztoratzen dizun maitaño horrek ez dizu kasurik ere egiten? Begiratu ere ez? Akaso ogi-kurrusku goxoa eskainiz gero...? Azken batean ama okina eta aita ogi-saltzaile ditu.... Ogi az egiozu berba sikieran!

## LETRA ZOPA

Badakizu zein kaletan bizi zaren? Bai? Topa itzazu hemen Begoña, Bolueta, Santutxu, Otxarkoaga edo Txurdinagako 10 kaleren izenak.. Ea zeurea ere bertan dagoen.

L R N O A P A M S K Ñ O P S  
T S U N T K O B E I U I L N  
A B K D D A I U S P L D D K  
R T E A N U X F F A T N Z O  
A K L R U A B T N E O A J Z  
G E R R A I A G N A I L U J  
N E U O P E A Z U L L A T E  
I N Z A G R I N A O N T S A  
M E A M A D E O D E P R I T  
O T I N F A L G J K N A S R  
X F S H S E R O L F A R I M  
T E I S L A S A C U P T A Z

## GURU+ZEGRAMA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

**EZKER ESKUIN** 1.- Ezizenak. 2.- Libertatea. 3.- Idi, hitz elkarketan. Landare mota. Diru hitzaren kontsonanteak. 4.- Zaren horrek. Bokala. Erdi, hitz elkarketan. 5.- Idazteko sistema bateko zeinu idatzi edo grabatua. 6.- Bat. 500. Behorra bero egon. Lehen eta azkenekoa. 7.- Zelaia. Bokal bikoitza. Argoia. 8.- Hobenak. Espainiako talde terrorista. 9.- Bokala. Ildoa. Automata. 10.- Zikinkeria. Zintzoak.

**GOITIK BEHERA** 1.- Gaizkia egiten dutenak. 2.- Armada. Ez eme. Kontsonantea. 3.- Iparretarrak. Artega. 4.- Elkarri emandako kolpea. Urrea. Potasioa. 5.- Arnas ezak hil. Katilu txikia. 6.- Zaudete. Errep., fruitu tropikala. 7.- Hizki baten izena. Hitz. Ibon izenaren erdian. 8.- Alder, Nazio Batuen siglak, ingelesez. Erbioa. Izan. 9.- Emakumezkoa. Ate, hitz elkarketan. 10.- Eskutitzak sartzeko erabiltzen diren paperezko poltsak.



# bertso berriak

## Bertoni jarriak



Sorpresa bat jatoriku Mahatserrira aurton, nahiz ta igual larregi deusagun itxadon kalera urteteaz gain han behar dau egon. Hartuz eizuz benetan miloi bat zorion ta lotu zaitez gugaz luzaroan Berton.

Begoña alde zaharraren herriko tamaina gaur hainbeste auzoren asfalto usaina. Erdereak oin gitxi hartu eutson gaina euskeldun asko gagoz banatuta baina, batzeko balioko al dau alajaina!

Bolueta ertzetik Arbolantxaraino Mahatserrian euskerak daukaz mila laino. Bertonen jarri dogu hainbeste enpeino nahiz eta ez gagozen hasieran baino bidea egiteko daukagu oindino.

Lan handiagaz jaku kalera iritsi batzeko Mahatserriko mila kontu bitxi ta zabaldu daitezcan behar aina eritxi jaio, jaio da eta berez ez da gitxi oin baztarrean hilten ezin dogu itzi.

Pertsona danantzako zabalik atea zer eta non esana badauka jentek. Ez jakoz inori be jarriko kateak aberastu eizuez gure debateak gero ez dau balio hau kritiketeak.

Ondo etorri xumea dator gaur kantari gure apurra emonaz aldizkariari. Danok behar gaitu ta ez ibili nagi, eskerrak bakotxaren laguntzatxuari aldizkari txikerra egingo da handi.

Euskal berbetak luze egin dau erreka, gaur erderak iruntsi arren uholdeka ez da amata eta hara hemen buelta. Bultzatu daigun Berton nahiz batzutan neka Mahatserriak ta euskerak merezi dabe ta.

SANTUTXUKO BERTSO ESKOLA